

## Emakumeak Botanikan



- **Nori zuzenduta:** LH
- **Iraupena:** ordu bat inguru
- **Prezioa:** DOHAINIK
- **Noiz:** Azaroan

“Emakumeak botanikan” erakusketa honetan ikus daiteke XVII. mendetik gaur egunera arte botanikako emakume ilustratzaile zientifikoek lana.

Bertan artearen, zientziaren eta generoaren arteko harremanak azaltzen dituzte.

Erakusketa honek zientziaren hedapen-prozesuetan parte hartu duten emakumeen kopurua azpimarratzen du. Irudi horiek aztertzea dokumentazio iturri interesgarria da ilustrazio-teknikek zientziaren historiarekin batera izan duten bilakaera ulertzeko, baina, batez ere, emakumeak historian zehar mundu zientifikoan nola sartu diren ulertzeko.

Erakusketa bisitatu eta jarduera didaktikoak egingo ditugu.